



spri



Enpresa
hornitzaileen
gidaliburua

Aurkibidea

1. Xedea
2. Nor gara?
3. Enpresa hornitzaileak hautatu, homologatu eta ebaluatzea
4. Kontratu txikiak
5. Lehiaketa publikoak – Lizitazioak
6. Entrega
7. Fakturetan jaso beharreko datuak



1. Xedea

Eskuliburu honen xedea da SPRIren eta bere enpresa hornitzaileen arteko harremanerako irizpide argiak ezartzea, prozesu guztietan kalitatea, gardentasuna eta araudia betetzea bermatuz. Halaber, xede du hornidura-katearen garapen arduratsuari lagunduko dioten jardunbide etiko eta jasangarriak sustatzea, lankidetza eta etengabeko hobekuntza indartuz.

2. Nor gara?

SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentzia zuzenbide pribatuko erakunde publikoa da, Eusko Jaurlaritzako Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailari atxikia, eta helburu du euskal industria sustatzea.

Euskal enpresak eraldatzen dituzten produktu eta soluzioak eskaintzen ditugu, gauzak egiteko berrikuntza eta jasangarritasuna erabiliz beti eredu gisa, merkatuko aukera berriak aprobetxatze eta eraldaketa digitalean berriena ezagutu eta aplikatze aldera.

MISIOA

Euskal enpresen lehiakortasuna sustatzen eta hobetzen laguntzea, Euskadin aberastasuna sortzen eta Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia Sustapenerako Politikaren esparruan garapen humano jasangarriaren bidez herritarren ongizatea hobetzen lagunduz.

IKUSPEGIA

Euskal enpresen sustapen ekonomikoari eta lehiakortasuna hobetzeari laguntzen dioten jardueretan erreferente izatea.

BALIOAK

IRISGARRITASUNA	Gure interes-taldeekin harremanetan gaude, entzunez, eskura egonez, bertan egonez eta efizientziaz jardunez.
OSOTASUNA	Egiten duguna esaten dugu eta esaten duguna egiten dugu.
GARDENTASUNA	Uste dugu printzipio hori premiazkoa eta ezinbestekoa dela gure jarduera egokia bermatzeko eta herritarren, gizartearen eta sortzen dugun zerbitzuko alde interesdunen konfiantza eta partaidetza sustatzeko.
BERRIKUNTZA	Helburu dugu zerbitzu profesionala ematea, non berrikuntza gure nortasun-ikurra den.
JASANGARRITASUNA	Gure jarduera egitean eragin positiboa dugu garapen ekonomikoan, sozialean eta ingurumenaren garapenean.

BIKAINASUN- AREN POLITIKA

SPRIk **kalitatearen** eta **etengabeko hobekuntzaren** konpromisoa hartu du bikaintasunerako erreferentziatzat eta hiru helburutan zehatu du: kalitatea gure kudeaketan, kalitatea gure programa eta zerbitzuetan, eta gure interes-taldeen gogobetetzea.

Horretarako, SPRIk konpromisoa hartu du **Gobernu Korporatiboko** praktikak aplikatzeko Administrazio Kontseiluaren eta kudeaketa-taldearen funtzionamendu eta lan ona bermatzeko, oinarritzko erreferentziatzat harturik onartuak dauden Administrazio Kontseiluaren Araudia eta Jokabide Kode Etikoa.

Era berean, **Compliance eta Barne Kontrolerako** sistema bat ezarri da gure helburu orokorrak eta legea betetzen direla bermatzeko, eta barne-prozedurak abiarazi dira SPRIren negozioak eta jardunak berekin dakartzaten arriskuak minimizatzeko.

Gure zerbitzuen Kalitatea estuki lotuta dago erantzukizunez eta profesionaltasunez lan egiten duen **giza taldearen** kalitatearekin. Talde horren helburua da gure zerbitzuen kalitatea lortzea, mantentzea eta hobetzea, balio erantsia emanez eskainitako zerbitzuari. Giza taldearen garapena printzipio hauetan oinarritzen da: aukera-berdintasuna eta bazterkeriarik eza edozein esparrutan. Horretarako, SPRIk konpromisoa hartu du jarrera gatazkatsuak eta/edo jazarpenezko jarrerak prebenitzeko eta gerta daitezkeen kexei aurre egiteko.

Gure **hornitzaileak** gure zerbitzuen funtsezko zati bat dira eta eragin zuzena dute gure bezeroen gogobetetzean. Beraz, elkarrekiko konfiantzan,

beharrezkoa den gardentasunean eta tratu-berdintasunean oinarritutako harremanak sortzen dira.

Ingurumenaren kudeaketa helburu estrategikoa da SPRIrentzat eta horregatik ahalegina egiten dugu baliabideak eraginkortasunez erabiltzeko, gure jarduerak ingurumenean eragiten dituen inpaktuak ebaluatzen ditugu inpaktu horiek prebenitzeko, desagerrarazteko edo minimizatzeko, eta legezko ingurumen-baldintza guztiak nahiz sinatutako beste edozein baldintza betetzen ditugu klima-aldaketaren aurkako eta ingurumena babesteko konpromisoa hartuz.

SPRIren Zuzendaritza bere langileen **segurtasunaz eta osasunaz** kezkatzen da; kezka horri erantzunez, Laneko Arriskuak Prebenitzeko Legean ezarritako arauak beteko ditu eta, betetze hori aprobetxatuz, ahalik eta gehien hobetuko ditu gure langileen lan-baldintzak.

SPRIren **Gizarte Erantzukizunaren** xedea da gure jarduera modu eraginkorrean garatzea, ahalegina eginez eskura ditugun baliabideak optimizatzeko, ekonomia-, ingurumen- eta gizarte-arloetan sostengarri izateko, eta gardentasunez/komunikatzeko, hau da, gure jardueri buruzko informazio garrantzitsua eta egiazkoa eskaintzeko.

Eta hori guztia helburu hau lortzera bideratuta dago: SPRIren Ikuspegia eta Misioa gauzatzea eta emaitza bikainak lortzea, politika eta estrategia, erakundeko pertsonak, baliabideak eta prozesuak bultzatu eta zuzenduko dituen lidergoaren bitartez.

Compliance

SPRIk, **Arrisku Penalak Prebenitzeko Sistema** ezarri du, bere Bikaintasun Politikan exijitutako konpromiso gisa, erakundearen kultura etikoa eta arauzkoa delako, eta ez duelako inolako tolerantziarik delitua izan litezkeen jarrerekin. Ildo horretatik, gardentasunaren, gobernu korporatibo onaren eta araudia betetzeko oinarrizko printzipioak betetze aldera, SPRIk bere enpresa hornitzaileei eskatzen die lan-arloko indarreko lege-xedapenak, arauzkoak eta ohizkoak bete ditzatela, baita Gizarte Segurantzakoak eta laneko segurtasun eta osasunekoak, ingurumenekoak, giza eskubideenak eta abarrenak ere.

Hizkera inklusibo eta ez sexista erabiltzea

SPRIk **Berdintasun Plana** eta **Komunikazio Berdinzalerako Jardunbide Egokien Eskuliburua** ditu; azken horrek jarduerako komunikazioa adeitsua, ekitatiboa eta diskriminaziorik gabea izatea sustatzeko jarraibideak eta gomendioak ematen ditu. Ildo horretatik, SPRIk komunikazio inklusibo eta berdinzalea bermatzen du bere enpresa hornitzaileekin harremanak izatean, lehiaketa publikoak-lizitazioak egitean eta eskaintzak eskatzean.

Hizkuntza-normalizazioa

SPRIk **Euskara Plan Estrategikoa** du, eta horrek bermatzen du euskarak presentzia baduela erakundearen enpresa hornitzaileak, lehiaketa publikoak-lizitazioak eta eskaintzen eskaerak homologatzean eta ebaluatzean.

3. Enpresa hornitzaileak hautatu, homologatu eta ebaluatzea

Enpresa hornitzaileak ezarritako kontratu-mailen arabera **hautatzen** dira (lizitazioa-lehiaketa publikoa, edo kontratu txikia).

Hornitzaileek SPRIri emandako produktu eta zerbitzu **guzti-guztiak ebaluatzen dira**.

SPRIk ulertuko du **hornitzaile** bat **homologatuta** egongo dela **lehenengo** produktu/zerbitzua **ematen denean ebaluazioak** emaitza **egokia** ematen duenean.

Ebaluazioan emaitza **ezezkoa** bada, eraginpeko enpresa hornitzaileari jakinaraziko zaio, neurri egokiak har ditzan, eta, bidezkoa bada, eten ahalko da.

4. Kontratu txikiak

15.000 € baino gutxiagoko horniduretarako zuzenean eskatzen dira eskaintzak merkatuan.

Kontratu txikiak egikaritzeko datu pertsonalak tratatu behar direnean, “Konfidentzialtasunerako eta datuen tratamendurako akordioa/kontratua” sinatu beharko da; agiri hori kontratu horren SPRIko arduradunak emango du.

5. Lehiaketa publikoak - Lizitazioak

- **Lizitazioen argitalpena:** [SPRIren webgunea/Kontratugilearen profila](#)
Derrigorrezkoa da **15.000 € edo gehiagoko** horniduretarako.
Enpresa interesdunek baldintzen agiria deskargatu beharko dute, eta, ondoren, eskaintzak bidali ahalko dituzte, dagokion lizitazioan adierazitako epean.
- **Eskaintzak entregatzea**
Lizitazioko eskaintzak epean entregatuko dira, adierazitako formatuan eta baldintzen agirian eskatutako agiri guztiekin.
- **Adjudikazioa**
Horretarako deitutako kontratazio-mahaiak eskaintzak aztertuko ditu, eta adjudikazio-proposamena egingo du, kontratazio-organoak erabakia har dezan.
Adjudikazioaren emaitza [SPRIren webgunean/Kontratugilearen profilean](#) argitaratzen da.

6. Entrega

Orokorrean, kontratuan adierazitako moduan, tokian eta baldintzetan egingo da.

7. Fakturretan jaso beharreko datuak

Gutxienez honako datu hauek emango dira **derrigorrez**:

- ✓ Fakturaren zenbakia eta data.
- ✓ Fakturari dagokion eskaeraren zenbakia.
- ✓ Igorlearen eta hartzailearen izena eta IFK. Igorlearen helbide fiskala.
- ✓ Produktu/zerbitzuaren deskribapena, zenbateko garbia (BEZa kanpo), aplikatu behar zaion BEZa, eta BEZa aplikatuz geratzen den zenbatekoa adierazita.

Orokorrean, fakturak transferentzia bidez ordainduko dira, jasotzen direnetik 30 eguneko epean.

Faktura guztiak helbide honetara bidali beharko dira:

SPRI-ENPRESEN GARAPENERAKO EUSKAL AGENTZIA
Plaza Bizkaia eraikina, Urkixo zumarkalea 36, 4. solairua,
48011 Bilbo.
(IFK: Q4800789B).